

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

2003ko apirilaren 30eko FORU AGINDUA, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua garatzen duena.

SARRERA

1. artikulua. Helburua.
2. artikulua. Jakinarazpena.
3. artikulua. Baimendutako Enpresen Erregistroan izena emateko eskaera.
4. artikulua. Erabiliko den makineriaren ezaugarriak eta lanak egitean kontuan hartu beharreko neurriak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Xedapen indargabetzailea

AMAIERAKO XEDAPENAK

Amaierako xedapena

BOG 15 Maiatza 2003

Ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretuak baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautu zituen. Foru Dekretu horretan zenbait aldaketa egin ditu apirilaren 29ko 19/2003 Foru Dekretuak, aldez aurretik baimena lortzeko erregimena egin beharreko lanak aldez aurretik jakinarazteko erregimen batekin ordeztu baita.

Ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua 2002ko azaroaren 19ko Foru Aginduaren bidez garatu zen eta arau horren helburuetako bat honako hau izan zen: Autopropultsatutako makineriarekin landaketarako lursailak prestatu nahi zituzten baso jabeek behar zuten baimena eskatzeko jarraibideak ezartzea. Ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretuan egindako aldaketek eskatuko lukete 2002ko azaroaren 19ko foru aginduan zenbait egokitzapen egitea baina, argiago izango delakoan, egokiagotzat jotzen da arau hori indargabetu eta horren ordezkotz berria ematea.

Horregatik, eta ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretuak amaierako lehen xedapenean ezarritakoaren arabera, Nekazaritza eta Ingurumeneko foru diputatuari ahalmena ematen diona foru dekretu honetan xedatutakoa aurrera eramateko eta betetzeko behar diren arauak eman ditzan,

XEDATU DUT

1. artikulua. Helburua.

1.3. Foru agindu honen helburua da autopropultsatutako makineriarekin landaketarako lursailak prestatu nahi dituzten baso jabeek hori jakinarazteko jarraibideak ezartzea.

1.4. Era berean foru agindu honen helburua da baita ere aipatutako jardueretarako baimena duten enpresen

Erroldan izena ematea eskatzeko jarraibideak ezartzea, erabili behar den makineriaren ezaugarriak identifikatzea eta lanak aurrera eramaterakoan kontuan hartu beharreko neurriak zehaztea.

2. artikulua. Jakinarazpena.

Baso landaketarako eta birlandaketarako lurra prestatzearren beren mendietan autopropulsioko makineria erabili nahi duten basoetako titularrek kasu guztietan jakinarazi beharko dute, nahiz eta 2000ko irailaren 5eko 80/2000 Foru Dekretuan edo, kasua bada, foru dekretu hori ordezkatzeko duen araudian aurreikusitako laguntzak jaso nahi edo ez.

Ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretuaren bosgarren artikuluan aurreikusitako gainerako aurkezte moduak baztertu gabe, jakinarazpenak ustialekua kokaturik dagoen Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan egingo dira, gutxienez jarduera hasi baino hamabost egun lehenago, horretarako prestatutako inprimakia betez, titularraren eta lana egingo duen enpresaren datuekin, kontuan hartuta enpresa horrek derrigorrez inskribatuta egon beharko duela ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretuan horretarako sortutako Erregistroan.

3. artikulua. Baimendutako Enpresen Erregistroan izena emateko eskaera.

Baso-berritze lanetarako lursailak autopropulsiotako makineriarekin prestatzeko baimena duten enpresen erregistroan izena emateko eskaera Mendietako eta Natura Inguruneko zuzendari nagusiari zuzenduko zaio, foru agindu honekin batera onartzen den eranskinetako inprimaki ereduari, ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretuko 4. eta 5. artikuluetan esaten den bezala.

4. artikulua. Erabiliko den makineriaren ezaugarriak eta lanak egitean kontuan hartu beharreko neurriak.

4.1. Landaredi edo mozketa hondarrak kentzeko, ahal den guztietan kate edota mailu motosegak erabiltzea gomendatzen da, makina bultzatzaile edo arrastatzaileak baino kalte-eragin gutxiagokoak direlako.

4.2. %35 baino gehiagoko maldetan erretro-armiarma makinak erabiltzea komeni da. Makina horiek erabiltzerik ez dagoenean eta makina bultzatzaileak erabili behar direnean, ondorengo ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- Palaren gehieneko zabalera: 2,5 metro.

- Makinak gehienez 10 Tm pisatuko du eta lurrean egiten duen presioa gehienez ere 0,5 Kg/cm²-koa izango da.

- Lurra ez herrestatzeko, palak gutxienez 6 zerra-hortz edo orraze bat edukiko ditu. Zerra-hortzen luzera gutxienez 20 cm-koa izango da.

4.3. Lursailak prestatzeko zepak edo zuhaixka sendoak kentzea beharrezkoa denean, makinarekin jaso baino lehenago moztu egin behar dira, motzondoak ateratzea eta lurraren aldaketa saihesteko.

4.4. Herrestatutako materiala, landaredi edo mozketa hondarrak, lokarri forman gorde beharko dira, ur ertzen babeserako landarediari, bideei eta komunikabideei eragin gabe.

4.5. Ondo egindako lanaren adierazle izango da aurretik zegoen landaredia berez jaiotzea eta lurraren egitura hautsi ez dela eta lur herrestaketarik ez dagoela ziurtatzea.

4.6. Makineria eguraldi baldintza onekin bakarrik erabiliko da, lurra gurpiletara eta kateetara itsatsi ez dadin, makinaren irristaketak eta lursailaren geruzan aldaketak saihesteko.

4.7. Lursailaren malda dela eta, landaredi edo mozketa hondarrak bultzatzen dituen makina eusteko beste makina bat behar denean, bultzatzen duen makinak balaztatze maniobretan pala sartzea saihestu beharko du, lur herrestaketak ez gertatzeko.

4.8. Makina bultzatzaileak, makina zorupe berritzaileak, hondeamakina eta atzerako armiarma makinak erabili behar badira, baimendutako enpresak eskualdeko basozainari lanen hasiera jakinaraziko dio, ezarritako baldintzak betetzen direla han bertan egiaztatzen dadin.

4.8 artikulua, 2007ko apirilaren 18ko Foru Aginduak [GIPUZKOA] idatzia, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen 2002ko ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua garatzen duen 2003ko apirilaren 30eko Foru Agindua aldatzekoa («G.A.O.» apirilak 25). Indarreangotasuna: 2007/04/26

4.9 Hondeamakinak direnean, 15 tonatik berako pisua izango dute eta terrenoan egiten duten presioa 0,5 kg/cm²-koa baino txikiagoa izango da

4.9 artikulua, 2007ko apirilaren 18ko Foru Aginduak [GIPUZKOA] barneratutakoa, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen 2002ko ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua garatzen duen 2003ko apirilaren 30eko Foru Agindua aldatzekoa («G.A.O.» apirilak 25). Indarreangotasuna: 2007/04/26

4.10 4.10 artikulua gehitu da. Hona hemen testua:

4.10 artikulua, 2007ko apirilaren 18ko Foru Aginduak [GIPUZKOA] barneratutakoa, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen 2002ko ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua garatzen duen 2003ko apirilaren 30eko Foru Agindua aldatzekoa («G.A.O.» apirilak 25).Indarreangotasuna: 2007/04/26

4.11 Lursailaren malda %60 baino goragokoa denean, ezingo da autopropulsaetako makineria erabili, atzerako armiarmak izan ezik. Azkeneko kasu honetan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

4.11 artikulua, 2007ko apirilaren 18ko Foru Aginduak [GIPUZKOA] barneratutakoa, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen 2002ko ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua garatzen duen 2003ko apirilaren 30eko Foru Agindua aldatzekoa («G.A.O.» apirilak 25). Indarreangotasuna: 2007/04/26

Xedapen indargabetzailea

Indargabe geratzen da, berariaz, 2002ko azaroaren 19ko Foru Agindua, baso lanetan makineria erabiltzeko bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak arautzen dituen ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretua garatzen duena.

Amaierako xedapena

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

**AURRE EKINTZA MEKANIZATUETARAKO
BAIMENA DUTEN ENPRESEN ERROLDAN
IZENA EMATEKO ESKAERA**

**SOLICITUD DE INSCRIPCION EN EL REGISTRO
DE EMPRESAS AUTORIZADAS PARA LAS
ACCIONES PREVIAS MECANIZADAS**

1.- ENPRESAREN DATUAK / DATOS DE LA EMPRESA

Enpresaren izena/Nombre de la empresa: IFZ edo NA/CIF o DNI:
Enpresaren ordezkaria/Representante de la empresa: NA/DNI:
Helbidea/Dirección: Udalerria/Localidad:
Posta Kod./Cód. Postal: Eraketa data/Fecha de constitución: Tínoa/Tíno:
Alta Ekonomi Jardueren Gaineko Zergan, 912 taldean (Baso Zerbitzuak)/Alta en el Impuesto de Actividades
Económicas, Grupo 912 (Servicios Forestales):
Data/Fecha: Kuota mota/Tipo de cuota: Probintziala/Provincial
Estatukoa/Estatal
Langile kopurua/Número de trabajadores/as:

2. ENPRESAREN ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA DE LA EMPRESA

Lehenago egindako jardura mekanizatuak
(Egin badira, deskribatu azken bi urteetan enpresak
burututako aldez aurretiko lan mekanizatuak, lana
enkargatu zuen baso jabearen izena eta mendia kokatua
dagoen udalerria zehaztuz).

Acciones previas mecanizadas realizadas
(Describir, en caso de haberlas realizado, algunas de las
acciones previas mecanizadas realizadas por la empresa
los últimos tres años indicando nombre del propietario
forestal que encargó el trabajo y localidad donde se
encuentra el monte).

.....
.....
.....
.....
.....

**3.- ALDEZ AURRETIKO LANAK EGITEKO ENPRESAK DITUEN BITARTEKOAK ETA
MAKINERIAREN EZAUGARRIAK / MEDIOS CON QUE CUENTA LA EMPRESA PARA LA ACCION
PREVIA Y CARACTERISTICAS DE LA MAQUINARIA**

1.- Motosega (kateak edo mailuak)/Desbrozadora (cadenas o martillos); 2.- Erretro-arniarma makina/Retroaraña;
3.- Lurpea lantzeko makina/Subsolador; 4.- Bultzatzailea/Empujadora

Makina mota Tipo de máquina	Modeloa Modelo	Fabrikazio urtea Año fabricación	Pisua (Tn) Peso (Tn)	Lurrari egiten dioten presioa Presión sobre terreno (Kg/cm ²)	Oharra Observaciones

4.- ESKAERA HAU EGITEN DUEN ENPRESAREN AITORPENA / DECLARACION DE LA EMPRESA QUE FORMULA LA PRESENTE SOLICITUD

- Ezagutzen dituela eta beteko dituela lursailak makineriarekin prestatzeko lanei buruzko baldintzak, ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretuan -apirilaren 29ko 19/2003 Foru Dekretuak aldatutakoan- eta 2003ko apirilaren 30eko Foru Aginduan ezarriak.

- Ezagutzen dituela eta beteko dituela laneo arriskuei aurre egiteko araudian zehaztutako betebeharrak, prebentzio jardueraren printzipioen arabera.

- Ezagutzen duela, era berean, mendli gaitan indarrean dagoen araudiak zigor arauak aurrekusten dituela, eta horien bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak bidezkoak diren zigorrak jarriko dituela, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik edo/eta modu egokian ez jarduteagatik eragindako kalteen arabera.

- Ezagutzen dituela Kontrol Batzordea eta borren funtzionamendu erregimena, ekainaren 11ko 34/2002 Foru Dekretuak aurrekositako osakerarekin, eta batzordearen zereginak errola gaitan eta sor litezkeen arazoetan aholkuak eman eta laguntzea izango dela.

- Konpromisoa hartzen duela lanak hasi baino lehen jabeagoak Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuaren baimena duela ziurtatzeko.

- Konpromisoa hartzen duela eskualdeko basozainari beharrezko aurrerapenarekin abisatzeko, honek tokian bertan egiazta dezan ezarritako baldintzak betetzen direla.

- Batzuetan lursailak lehenagoko ekintzen kaltea duela kontuan harturik, konpromisoa hartzen duela Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuari jakinarazteko, Departamentuko teknikariek azken ikuskapena egiterakoan kontuan hartu dezaten.

- Que conoce y se compromete a cumplir las condiciones de ejecución de las labores de preparación del terreno con el empleo de maquinaria, establecidas en el Decreto Foral 34/2002, de 11 de junio -modificado por Decreto Foral 19/2003, de 29 de abril- y en la Orden Foral de desarrollo de 30 de abril de 2003.

- Que conoce y se compromete a cumplir las obligaciones establecidas en la normativa sobre prevención de riesgos laborales, con arreglo a los principios de acción preventiva.

- Que conoce igualmente la existencia del régimen sancionador previsto en la normativa vigente en materia de montes, mediante el cual el Departamento de Agricultura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa impondrá aquellas sanciones que resulten procedentes en función del daño causado por el incumplimiento de las condiciones establecidas y/o por la inadecuada ejecución de las tareas.

- Que es conocedor de la existencia de una Comisión de Control y de su régimen de funcionamiento, con la composición prevista en el Decreto Foral 34/2002, de 11 de junio, y con funciones de asesoramiento y colaboración en la materia objeto del Registro y de aquellas cuestiones que surjan por razón del mismo.

- Que se compromete a no iniciar ninguna acción sin asegurarse de que la propiedad cuenta con la autorización oportuna del Departamento de Agricultura y Medio Ambiente.

- Que se compromete igualmente a comunicar al Guarda Forestal de la zona, con la antelación suficiente, el comienzo de las labores de cada acción para la comprobación *in situ* del cumplimiento de las condiciones establecidas.

- Que teniendo en cuenta que a veces ya el propio terreno cuenta con deterioros producidos en actuaciones anteriores a la acción previa, se compromete a informar de ello al Departamento de Agricultura y Medio Ambiente, a fin de que se tenga en cuenta durante la inspección final a realizar por los técnicos del Departamento.

Lekua eta data/Lugar y fecha:

Izptua./Fdo.: